

## GURE AMAGANDIKO GABON KANTAK

Juan SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

Nire adinekoek, Eibar euskaldun hartan, gurasoek euskaraz hezi ginduzten; baina etxean eta kalean euskaraz mintzatuarren, eskola ikasketa guziak gazteleraz soilean egin genituen. Gezurra badirudi ere, hortik jotzen genuen euskara balio gutiko hizkuntzatzat.

Ni neu, soldadutza garaian, sorterritik urrutiratzeaz, barne-gogoetak eraman ninduen euskararekin arduratzera. Izan ere, nekeza egiten zitzaidan amari gazteleraz idaztea eta, garai hartan, ni neu euskaran analfabetoa izaki. Hogei urte nituen eta pentsatu nuen inoiz ez zela berandu norbere gizarte hurbilenaren aurrean bertako seme jatorren jarrera har niezadan. Geroztik, arretaz, eten gabe jarraitu diot, erderak ukatu gabe, norbere jatorrizkoari.

Besteak beste, oroitzapenen gogoangarri, gure familiko giroan Gabon kanta zahar sorta ederraren jabe zen gure ama eta horiek izan zuten nigan eraginik. Gure amaren ahoan ez ezik Eibarren bertan eta esango nuke Euskal Herri gehiengan ere eufonia aldakeragatik, legez *Gauon* dena, *Gabon* bihurtzen da eta lan honen buruan, titulutzat gure amak berak zioen eran errespetatu nahi izan dut.

Gaztaroan kanta gehiago omen zekizkin, hemen bertan jasotzen direnak ere luzeago, baina batzuk ahaztu bazitzaizkion ere, sail polita jaso nion, bere letra eta soinuekin.

Ba zen garaia horiek argitara emateko eta gaur, Arabako Billerlen (Legutianon) euskarak bere gogo lehene aldiz piztu eta kezkatu zion Federiko Krutwig adiskideari, euskaltzain izendatuzenetik mende erdi betetzean, bihotz-bihotzetik omenez eskaintzen dizkiot.

Gure esaera zaharrak dioenez: Aurreak erakusten omen du atzea nola erabili. Eta euskaltzale bihurtu nintzenetik, herri literaturan baliozko zaizki-

gun lehenagoko herri kanta, ipui eta kondairaz arduratu nintzen. Aitarengandik tradiziozko gehienak, eibartar kalekumeontzat oso arruntak ziren, han bertan nornahigan aurkitzen bai nituen eta garrantzi gutxi ematen nioen, aldiz, amarengandikoak bestelako bitxitasun berezia bat zuten eta nire gogoaren barnerako arbaso mezua zekarten. Bere aitagandik ikasi zituen, ni ezagutzera iritisi ez nintzen aitonagandik. Hark bere gurasoengandik ikasiak omen ziren. Horrela izatera, joan zen mendearen erdi aldean kokatu beharko nituzke. Eta beraien antzinatiko sustraiak Bizkaiko Otxandio, Arabako Billerle (Leguniano) eta Zigoitia aldean omen. Aitonaren deitura bera Zuiako Zarate herritxotik zetorrenarren.

Otoi, ez dadila inor harritu Otxandioko mintzaira arabartzat hartzeaz. Oroi A. Iturzaeta Otxandiokoaren *Urtearen domeca guztiñetaraco berbal-diac*, Fr. J.A. Unzueta Abadiñoakoak "Bizcaico eusqueran ibiniac" (1894) argitaratu zituela.

Erroak Araba aldean edukiarren, euskaran gehiago sakonduz ohartu nintzen haietariko batzuren hizkera ekalderagokoa zela, beraien giputz forma nabariagatik. Horrek, aldi beran, gure gizartean euskalkien gainetik euskarak berez zuen elkertasunezko harremana erakusten zidan. Kantok noiz bait egile jakinen bat izan zuten eta, herri kantekin gerta ohi denez, ahoz-aho beste euskalkietara zabalduak noski, toki bakoitzeko aldaeran bertako hizkerara hurbilduz.

Dena den, Sebastian Ortíz de Zarate Elgea aitona zenarengandiko meuztat har nezazke, gure amak buruz ikasiak zituen kantok. Haiek izaten genituen familiko batasunean Gabon gabaren alaigarri eta une berean arbaso katearen loturazko oroitzapen. Horien gogoetatik konturatzen nintzen sentipenari mugak jartzea zein zaila zen eta geroztik bestelako ikuspegia izan dut gure herri hizkuntzari buruzkoan.

Lehenago, kanta hauen zati batzuk Donostiako *Hoja del Lunes*-ean eman nituen, 1981eko abenduaren 28an eta 1982ko abenduaren 27an.

Orain, osotasunean ematean, irakurlearentzat ohar bat: kanta hauetan agertzen den idazkera, j grafema, gaztelerazko y letraren fonema bezala ahoskatzen dela. Aldi berean, gaurko irakurleari errazago jartzeko, euskara batua- ren arabera, behar den tokietan parentesi artean (h) ipintzen diot, egungo euskara batuan irakurtzera ohituak daudenei ulerterrezago egiteko asmoz, zeren kanta hauek berez ez bai dute grafema hori.

Horietaiko batzuen zatiak, Otxandion eta Legutianon jasoak hain zuzen, Azkuek agertu zituen *Cancionero popular vasco* bilduman (Bartzelonan, urte gabe, 1915. urte inguruan argitaratua), bigarren liburuko 912 eta 925. zenba-

kidun kantetan ikus daitekenez. Baina bada beste bat ere, 920.a, Gernikan bildua. Hemengoekin zuzenean ikustegorik badute noski, baina haiek zati tipi batzuk baizik ez eta hemengo hauek askozaz osatuagoak dira.

Une honetan ezin nezazke ahaztu M. Lekuonak bildutako "Gabon-kantak", *Anuario de "Eusko-Folklore"* urtekariaren XIII. liburukiko (1933) 37. orrialdean emanak. Horietan agiri denez, kanta hauek, erroak luze bezain zabal dituztela.

Inork zehatzago sakondu nahi baldin balituzke, kanta bakoitzari dagokion unean ezarriko dizkioet lortu ahal izan ditudan beharrezko adibide oharrak argibidez.

Bestalde, esan beharrezkoa iruditzen zait, hemen azaltzen ditudan kanta batzuk, heuren itxuragatik, erraz ohartuko garala antzirudizko aurkezpenetarako gertatuak zirela.

Amak esaten zidanez, abenduko hilean sartzeaz bat hasten omen ziren kantak, eta horietan lehena, honako hau izaten omen zen:

*Abendu santu (h)onetan  
Kristoren jaixotzia,  
alegera begi mundua,  
(h)oraintxe da denporia*

*Ai! Mari, ai! Jose,  
Jose Maria.  
Ai! Mari, ai! Jose.*

Kanta honen doinua, ondotik aipatuko dudana "Billotzik jaioarren..." delakoaren bera da, horren lehen bertsoa berau denez. Etxeko ohituraz, kantaren titulu gisa horrela erabiltzen bai genuen.

Baina beste ohar bat ere merezi du hasierako bertso honek, zeren bere lehen lerroak zer ikusirik dutenez Nikolas Zubiak 1691.ean Donostian bizkaieraz argitara eman zuen *Doctrina Christiana* haretan argitara zuen bertsoarekin. Non zioen:

*Gau on Sanctu onetan  
launaren iaiocan  
pozgatu gaitean  
gustioc uiotzean.*

\* \* \*

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

## BILLOTZIK JAIXOARREN

Bi-llo-tzik jai-xo-a-rren ez za-ra Zu po-bri-

8  
a ze-ru-an jo-si-rik da-go Zu-re-tza-ko e-rra-

15  
pi-a Ail, Ma-ri; ai! Jo-se, Jo-

22  
se Ma-ri-a. Ail, Ma-ri; ai! Jo-se.

The musical score is written in a single system with a treble clef and a 3/4 time signature. It consists of four lines of music, each with a corresponding line of lyrics. The lyrics are in Basque and describe the birth of Jesus. The first line starts with 'Bi-llo-tzik jai-xo-a-rren ez za-ra Zu po-bri-'. The second line starts with '8 a ze-ru-an jo-si-rik da-go Zu-re-tza-ko e-rra-'. The third line starts with '15 pi-a Ail, Ma-ri; ai! Jo-se, Jo-'. The fourth line starts with '22 se Ma-ri-a. Ail, Ma-ri; ai! Jo-se.' The music features various note values including quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests and slurs.

*Abendu santu (h)onetan  
Kristoren jaixotzia,  
alegera begi mundua,  
(h)oraintxe da denporia.*

Ai!, Mari; ai!, Jose,  
Jose Maria.  
Ai! Mari; ai!, Jose.

*Biltozik jaixoarren  
ez zara Zu pobria,  
zeruan josirik dago  
Zuretzako erropia.*

Ai!, Mari; ai!, Jose...

*Zein izan ete da  
(h)aretxen joslia?  
Errege don Felipen  
alaba lindia.*

Ai!, Mari; ai!, Jose...

*(H)or goixen etxe bat  
jo daigun atia,  
irigi balegie  
Josepe neuria.*

Ai!, Mari; ai!, Jose...

(H)or goixen ate bat  
jo daigun kabua,  
ixa jausirik dago  
zarraren puruaz.

Ai!, Mari; ai!, Jose...

Gure amak zenak zioenez, Jesus Haurraren sorreraz, erromantze gisako bertso hauek, era berdineko doinu eta letraz, euskaritxo bera errepikatuz gehiago omen ziren. Oroitzen zituenetarik hemengo hauek bakarrik jaso nizkion.

Bertso parekatu hauetan argi dagoena zera da, Gernikaldean kantatzen diren "Marijesiak" derizatzenekin, doinu desberdina izanarren, badutela elkarren artean zer ikusirik. Baina, gure amari jaso nizkionaren berdintsuak, letraz behinikpehin, "Ai Mari, ai Jose..." ikus J.M. Barandiaranek Bizkaiko Larrabetzu eta Amorebietan eta Arabako Olaetan jasoak, *Anuario de "Eusko Folklóre"* urtekarian (1922), II. liburukia, 61-69, 81-89 eta 89-91, orrialdeetan. Bestalde, beha ditzagun Manuel Lekuona zenak geroago *Anuario de "Eusko-Folklóre"* urtekari berean (1933), XIII, 37. orr. agertaratu zituen "Gabon-kantak" eta biltzaile berak *Egan* (1956) aldizkariaren 5-6 zenb., 16-24. orrialdeetan argitaratu zituen "Marijesiak".

Aldiz, oraintsuagoko azterketaz, Marijesiak antzirudizko aurkezpenetarako zitezkeenari buruz, ikus J.A. Arana Martijak *Dantzariak* aldizkarian (1979 otsaila, 34-43. orr.) argitaratu zuen iker lana.

Hirugarren bertsoan aipatzen den errege Felipe, nor ote zen? Felipe V.a zen izen horretako azken erregea. Bera balitz kanta hau, XVIII. mendearen lehen partean jartzekoa da. Baina, nire ustez, harantzago joan gaitzke, zeren gure artean hots handia izan zuena, Felipe IV.a zen, bere alaba Maria Teresa infanta, 1659. urtean Frantziako errege Luis XIV. arekin ezkontzean, aldi berean Pirineoetako Bakea jarri zuena. Edozelan ere, aipamen horrek kantaren zahartasuna adierazten digu.

R.M. Azkueren bilketetan, esan beharra dut, sarreran aipatu ditudan haieztaz gainera, hemengo lehen bertsoaren kidekoa dela Azkue berak Gernikan bildu zuena; baina euskaritxorik gabeko bertso soila besterik ez da. Ikus *Cancionero popular vasco, II.* liburukia, 1.085. orrialdean, kantaren 929. zenbakiz datorrena.

\* \* \*

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

(H)OGETA LAUGARRENA DEGU ABENDUAN



Be - len - go por - ta - li - an es - tal - pe ba - ti - an jai -



xo da Je - sus u - mil ga - na - du ar - ti - an.

*(H)ogeta laugarrena  
degu abenduan,  
desio genduen  
logratu genduan.*

*Gaeko (h)amabiak  
jo daben orduan  
gure Salbadoria  
jaixo da munduan.*

*Erakutsiko degu  
zer ein be(h)ar degun,  
Berari alabantza  
kantatu dezagun.*

*Belengo portalian  
estalpe batian  
jaixo da Jesus umil  
ganadu artian.*

*Astua ta idixa  
daukaz aldamenian  
arnasaz berotzeko  
(h)oztutzen danian.*

*Kristalian argia  
garbi da pasatu,  
jaixota gero ere  
dontzeila gelditu*

*Espiritu Santuagandik  
sortu da Gizona,  
Trinidad Santuko  
bigarren pertsona.*

*Jose eman diote  
Mariari esposo  
bixok izan daitian  
(H)aur (h)onen guraso.*

Honako parekatu hau, zortziko txikian, oso alai eta bidez-bidekoen doinu era du.

Laster antz ematen zaie zenbait formaz giputz erakoak direla. Horregatik, paper zahar eta aldizkariak arakatuz aurkitu nituen beste bi kanta eta haien aldaeratzat jo nezake amagandiko hau. Bata, J.M. Barandiaranek Gipuzkoako Bidanian jaso zuena, askozaz luzeagoa eta, guztiz berdina ez bada ere, hara non ematen zigun musikaren pentagrama, ikus *Anuario de "Eusko-Folklore"*, II (1922), 43-47. orrialdeetan. Bestea, kanta beraren aldaera, baina euskaritxoarekin, ikus X sinadurapean argitaratua, "Kanta Zarrak. Jesus'en Jaiotza" deritzana *Euskal Erriaren alde* aldizkarian, XVII (1927), euskara saileko 244-245. orr., zortziko txikiaren neurri berean, baina doinurik gabe dago eta alde hortatik osagai zerbituko digute Barandiaranek bilduak eta gure amagandik jasoak.

Kantok, garbizale batzuren ustez hain txukunak ez badira ere, horrela ziren gaztelerarik etzekien herritarren euskara jatorrean eta ez batzuren ames galduetakoan.

Bertso hauek, duela hogetaka urteak Eibarko Ikastolari eman nizkion eta Gabonetan hainbat urtetan kalez-kale kantatu dituzte.

\* \* \*

### (H)ATOR, (H)ATOR, MUTIL ETXERA

(H)a - tor, (h)a - tor, mu - til e - txe - ra, gaz - tai - na xi - me - lak

8  
ja - te - ra, Ga - bon ga - bau pa - sa - tze - ko ai - ta - ren

15  
d'a - ma - ren on - do - an. Da'i - ku - si - ko dek ai - ta ba - rrez - ka,

22  
t'a - ma be guz - tiz kon - ten - tuz. E - ra - gi - xok mu - til au - rre - ko

29  
dan - bo - lin (h)o - rri, gaz - tai - nak e - rre - ar - ti - an, gaz - tai - nak e - rre - ar - ti - an,

36  
txi - pli, txa - pla, baun! Ga - bon ga - bau pa - sa dai - gun kon - ten - tuz.

(H)ator, (h)ator, mutil etxera,  
 gaztaina ximelak jatera,  
 Gabon gabau zelebrazteko  
 aitaren d'amaren ondoan.  
 Da'ikusiko dok aita barrezka,  
 t'ama be guztiz kontentuz.

Eragiok mutil aurreko danbolin (h)orri,  
 gaztainak erre artian,  
 gaztainak erre artian,  
 xipli, xapla, baun!  
 Gabon gabau pasa daigun kontentuz.

Hain ezaguna zaigun "Ator, ator..."ekin hasten den hau da beste kantetari-ko bat, baina ez Azkuek Otxandion jaso zuenarekin guztiz berdina, era herrikoiagoan baizik. Ikus Azkuek bildua: *Cancionero popular vasco*, I liburukia, 99. kanta, 155. orrialdean.

Lehenago, oraingo honen berri, Donostiako *Hoja del Lunes* asterokoan eman nuen, 1972. urteko abenduaren 11. ean, gero *Gogoz* (1978) deritzan liburuaren 30-31. orrialdeetan bildurik datorrena.

Argitu beharra dut lehen bertsoaren hirugarren lerroan batzutan "zelebrazteko" erabiltzen zuela eta beste batzutan "pasatutzeko". Azkenaurreko lerroan ere, haserako xistukaria hain leun erabiltzen zuenez, bere ahoskeran "txipli" baino hurbilago zuen "xipli". Bestalde, "gabau", "gaba hau"-ren laburpenez ulertu beharrezkoa dela.

\* \* \*

GABONEZ JOAN NINTZAN EDO (H)ELDUDOK GABON MUTILLAK

The musical score is written in a single system with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The melody is accompanied by a simple bass line. The lyrics are written below the notes, with some words in parentheses indicating alternative pronunciations or dialectal forms. The score is divided into measures, with measure numbers 5, 11, 16, 21, and 27 marked at the beginning of their respective lines.

5 Fa-mi-li-xaz ba - te - ra ja-ri nin-tzan mai - xan Ga-bon ze-le-bra-  
 6 tze - ko a - le - gre - ran - tzi - xan. Le - len - go - ko tra - gu - a  
 11 (h)i - ru tzi - ki zi - ran. (h)otz go - go - rra\_e - go - na - reen biz - kor ja - ri nin -  
 16 tzan. (H)el - du dok Ga - bon mu - ti - llak, a - ta - ra ar - dau za(h)a - rra,  
 21 jan dai - gun me - za os - te - an ka - po - ia - ren iz - ta - rra. Joik An - ton, dan - tzan ein dai - gun  
 27 be - sa - pe - ko ki - ta - rra, in - dar ge(h)i - goz go - i - a - zak jai os - te - an ge - rra - ra.



*Gabonez joan nintzan  
neronen (h)errira,  
bazan jentia franko  
neroni begira.  
Lepuan bildots erdi bat  
loturik gerrira,  
maletan bixigu bi,  
legatz ta aingira.*

(H)eldu dok Gabon mutillak,  
atara arda za(h)arra,  
jan daigun meza ostean  
kapoiaren iztarra.  
Joik Anton, dantzan ein daigun  
besapeko kitarra,  
indar ge(h)iagoz goiazak  
jai ostean gerrara.

*Itxu-soinuan datoz  
pastoriak dantzan,  
Jesus jaixo dalako  
Belenen lastatzen.  
(H)orregatik daukagu  
legatza bai saltsan,  
beste bixigu (h)andi bi  
erretzen brasatzen.*

(H)eldu dok Gabon mutillak, ...

*Familixaz batera  
jarri nintzan ma(ha)ixan,  
Gabon zelebratzeko  
alegrerantzixan.  
Lelengoko tragua  
(h)iru txiki ziran.  
(h)otz gogorra egonarren  
bizkor jarri nintzan.*

(H)eldu dok Gabon mutillak, ...

Hiru bertso baizik ez ditu, beste horrenbeste euskaritxo. Gure gaztaro-ko ustez, kantarik politena genduen, bereziki Gabon gabeen mahaian jartzeaz bat kantatzen bai genuen, guzientzako osasun opariz sagardo pizkatekin "klink" eginaz eta euskaritxo bizkorra errepikatuz.

Baina, nire ustez, bertso gehiago zituen, zeren bigarrena inoiz beste era batera hasten zuenez eta hor estrofaren baten hutsunea nabari du. Bertso edo estrofa hori era honetara ere jaso nion:

*Goiko mendixetatik  
pastoriak dantzan  
Jesus jaixo dalako  
Belenen lastatzen.  
E(n)da (h)orregatik daukau  
legatza bai saltzan,  
beste bixigu (h)aundi bi  
erretzen brasatzen.*

\* \* \*

### GAUR DALA BELEN, GAUR DALA BELEN!

O - ier - txo, zer e - gi - ten do - zu (h)or su - paz - te - rre - an ja - rri - rik?

Joan a - rin, a - rin Be - le - ne - ra ta zer ba - rri dan ja - kin (h)e - gi - nik.

Gaur da - la Be - len, Gaur da - la Be - len! Jai - xo da Je - sus Na - za - ren.

Ga - bon ga - ber - di - xan be - re a - mak al - tzu - an dan - tzan e - ra - bi - llen.

*Oiertxo, zer egiten dozu (h)or  
supazterrean jarririk?  
Joan arin-arin Belenera ta  
zer barri dan jakin (h)eginik.*

*Gaur dala Belen,  
Gaur dala Belen!  
Jaixo da Jesus Nazaren.  
Gabon gaberdixan bere amak  
altzuan dantzan erabillen.*

Horien antzerako bi bertso dakartza Azkuek *Cancionero popular vasco*, II liburukiko 1081. orrialdean, 925 zenbakiduna, Legutianon bertan jasoa.

Lehenengo bertsoaren hasiera, familiko txikienari bere izenez dei eginaz Belenera zer berri den jakitera joan zezan eskaria egingo zion. Adibidez, hemen aurkezten dudana, gure Oier bilobarik gaztetxoena zuen garaikoa da. Izena, zein izango zenaren gora-beherara, bertsoak eskatzen dituen neurrira makurtzen zuen, hiru silabetan sartzea lortu ahal izateko, batzutan laburpenez sinalefa eginaz edo hurrengo izenari txikigarri zaion “-txo” atzikia erantsiz baliatuko zen. Baina neurriak hala eskatze horretan, tratamenduzko hutsean erortzen zen. Lehen lerro hortan hikako “dok”-en ordezkuko “dozu” jartzeaz. Esan neza-ke, kanta bere jatorriz hikan erabiltzekoa zela; baina tratamendu hori adineko edo gaztetxo helduentzat soilik erabiltzen da gure inguruetan, aldiz hurrei beti zukan hitz egiten zaie errespetuzko trataera hori ikas ditzaten.

Gure amak, bigarren bertsoa, euskari erara, doinua aldatuz kantatzen zuen. Baita ere, argitasunerako esan beharrezkoa zait, bigarren horren lehen errepika, batzutan “Gaur dala Gabon” hasten zuela eta hurrengo “Gaur dala Belen”.

\* \* \*

## GABON GABIAN

Ga - bon ga - bi - an u - su do - gu - nok guz - ti - ok a - pa - ri on

bat, le - gaz, bi - xi - gu, ba - ki - llau sal - tsan, ba - ko - txak a(h)al da - ben - txu - a -

gaz. Ge - ro txu - rrun plau - plan! Ka - tu - ak (h)ar - tu - ta, i - ges i - ge - si - ka.

*Gabon gabian usu dogunok  
guztiok aparti on bat,  
legaz, bixigu, bakillau saltsan,  
bakotxak a(h)al dabentxuagaz.*

*Gero txurrun plau-plan!  
Katuak (h)artuta, iges-igesika.*

Hasierako lerroan datorren “usu” hitzak, usuario (ohitura) adierazi nahi du. Inoiz entzun izan nion era jatorragoa deritzadan “usu dogunez”, baina gehienetan “usu dogunok” erabiltzen zuenez, era horretara uztea nahiago izan

dut. Azken lerroko "katuak hartuta", inguru hortako argotean, mozkorra hartzea da. Edo, hobeto esan, mozkorrak hartzea; bere formaz, loak hartzea bezalatsu da; otoi, ez lo hartu, jatorrago den loak hartu baizik.

Honen aldaera dakar J.M. Barandiaranek *Anuario de "Eusko-Folklore"*, II (1922), 99. or., Berrizko Leon Bengoari jaso, baina ez da zehatz berdina, batez ere azken partean, horrez gainera pentagramarik gabe dator. Oraintsuago, Bilboko Graficas Ordorica inprimategiak agertu zituen *Euskal abestiak* liburuxka saileko II. alean (1961. urtean) "Olentzero" izenburuz 16-17. orrialdeetan pentagramaz jaso zekarren, baina hemen ere bukaera desberdinez.

Gure herriko jan-edanezko folkloreaki familian urtean behin leku egiten geniolarik, ezin nezake aipatu gabe utzi, Gabon gaueko afarian, unerren batean edo bestean, hango jan-edana eta kanta giroaren eraginaren ondorioz humorez gainezkatzeaz, esango nuke gazteok inoiz neurritik irtetzen ginela, pozaren pozez erdi txorabiatuak, Kristorengandik baino Bako, Dionisio edo Gargantuaregandik hurbilago jarritz. Hori gainera gure etxean gorputzez behar bezala indartu arte, hamasei urte bete arte, inork ardo edo ahalkoldun edaririk frogatzen ez genuela, Gabonetan eta Sanjoanetan sagardoa izan ezik. Hori bai zen etxeko arau edo norma osasungarria. Baina bai, neurritik harat irtetze horretan, gurasoek laster gogoratuko ziguten beharrezko ordenara itzularaziz, ez zezagun ahaz Jaiotzaren ohoretan bilduak geundela.

\* \* \*

"Natibitate ase ta bete" esaldia gora-behera, Eguberriak ez ziren urte mugaz etetzen, Gabon gauaren ospaketak Erregenak arteko jarraipena zuten, baina haur kanta arruntagoz eta maizenik zentzu gutikoak. Hala ere, kontutan har, haurren "agillando" zirelako gehienak eskean ibiltzekoak zirela. Hara hemen horietako bertso batzuren oroitza.

Ez noa hauen doinurik ematera, oraindik erabiliak izateaz gainera, lehen-dik bildumazko sail askotan emanak baitira:

*Urte barri-barri  
daukanak ez daukanari,  
nik ez daukat eta neri;  
neri emoten eztaustanak  
txarri-belarri.*

Bertso horren beste aldaera bat izaten genuen honako hau:

*Urte barri-barri  
daukanak ez daukanari,*

*nik ez daukat eta neri;  
neri emoten eztaustanak, itxi.  
Si, si, si; no, no, no,  
aquí estamos cantando.  
Cantaremos dos  
por una limosnita  
por amor de Dios.*

*Agillando, agillando,  
bizkaitarrak! Durangon,  
zazpi gaztaina  
zortzi intxeur.  
Aingeruak gara,  
zerutik gatoz,  
poltsia dogu baina  
eskian gatoz.*

*Erregen, Erregen  
Mari montaña,  
zazpi intxeur ta  
zortzi gaztaina,  
(h)aren gainian lau sagar,  
nere altzua zabal, zabal.*

Horien antzerakoak Eibarren bertan ere kantatzen ziren. Horietako batzuren berri eman nuen *Antzinako Eibar* (1993) deritzan liburuaren 32-34. orrialdeetan.